

Zizur Nagusiko Musika Eskolako Barne Araubidearen Arautegia

Zizur Nagusiko Musika Eskolaren Udal Patronatuaren batzordeak, 2016ko apirilaren 19an egindako bilkuran, Musika Eskolako Barne Araudia aldatzea erabaki zuen; behin betiko testua jarraian transkribatzen da:

HITZAURREA

Musika Eskolaren funtzionamendu egokiaren eta hezkuntza-komunitate guztiaren (ikasleria, gurasoak, irakasleria eta irakasle ez direnak) elkarbizitzaren oinarria elkarrenganako errespetua izanen da, elkarbizitza zuzen bat lortzeko, eta era berean, lanean gehieneko errendimendua lortzeko.

Lehen Artikulua: Elkarbizitzarako eta jokabiderako arauak

1. Materiala: Guztion betebeharra da Ikastetxeko materiala, altzariak eta instalazioak zaintzea, beti kontserbazio eta erabilera ahalik eta egoera hoberean mantenduz.

A) Ikasleek dagokien irakasleari geletan, komunetan, pasabideetan eta abarretan sortu diren hondatzen berri eman beharko diote, nahitakoak izan zein ustekabeak, erantzukizunak mugari daitezzen, banakakoak zein kolektiboak.

B) Kalteak ardura faltagatik edo nahitakoak izan badira, konponketa eragileek ordainduko dute, eta, Zuzendaritza Taldeak proposatuz gero, kasua aztertu ahal izanen da Patronatuko Batzordean.

2. Garbiketa: Konturik handiena jarriko da Ikastetxeko gela guztiak garbi mantentzen: gelak, pasabideak, komunak, jolastokiak, eta abar. Beraz, pipitak jatea, txikleak, ogitartekoak eta abarrak debekaturik daude. Ardura faltagatik zikinkeria dagoen kasuetan, eragin dutenak garbiketaz arduratuko dira.

3. Horma-irudiak: Xede horretarako dauden tauletan bakarrik itsasten ahal dira horma-irudiak, Zuzendaritzaren alde aurreko baimenarekin, arduratuko dena kasu bakar batean ere elkarrenganako errespetuari huts egin ez dezaten.

4. Erretzea: Eraikinaren barnean ez da erretzen utziko.

5. Alkoholdun edariak: Ez da salmenta ezta alkoholdun edarien kontsumoa onartuko.

6. Biltzeko lekuak: Pasabideak, eskailerak eta komunak saihestuko dira biltzeko edo jolasteko leku bezala.

Bigarren artikulua: Bertaratzea, Puntualtasuna eta Egonaldia Ikastetxean

1. Puntualtasuna: Klaseak eta beste edozein jarduera puntualki hasi eta amaituko dira.

2. Bertaratzea: Ikasleen hutsegiteak beti justifikatuak izan beharko dira, idatzizko azalpen baten bitartez. Dagokion irakasleari entregatuko zaio gero, Eskolak emandako egiaztagiri eredia eta tutore legal batek sinatuko du egunak eta orduak zehaztuz. Aurreikus daitezkeenak

aldeztatik jakinaraziko dira eta bat-batekoak ikastetxera itzultzerakoan eta hiru eskola-egun pasa baino lehen. Kasu zehatzetan gurasoen edo arduradunen presentzia eskatuko da.

3. Hutsegiteak: Ikasle batek, ustekabearen, Ikastetxetik alde egin behar badu, haren tutoretza legala bidegabeki daukanak dagokion irakasleari idatziz eskatuko dio arrazoia argudiatuz. Kanpoan izatea aurreikusita badago, eskaerari irteteko ordua gehituko zaio.

4. Eskola-orduak: Ikasleek, klase orduetan, ezin izanen dute pasabideetan, eskaileretan, komunetan eta abarretan geratu. Edozein arrazoigatik ezin izanen balute gelan egon, horretarako prestatzen den lekuan egon beharko lukete.

5. Ikasleen gain ardura: Musika Eskolako pertsonalak ikastetxean ikasleen gain duen ardura ikasleek jarduerak bukatzen dituzten unean amaitzen da, une horretatik aurrera gurasoen ardura izanik.

Hirugarren Artikulua: Ikasleen eskubideak

Artikulu honek ABUZTUAREN 23KO 47/2010 FORU DEKRETUKO, eta 2014KO UZTAILAREN 30ean ALDATU ZENEKO puntu esanguratsuenak jasotzen ditu.

1. Ikasleri guztiak eskubide eta oinarrizko betebeharrak berdinak dauzka, haren adin eta egiten ari den ikasketengatik eratorritako bereizketa horiek salbu.

2. Haien eskubideen erabilera Hezkuntza-komunitatearen kide guztien eskubideen aitortzea eta errespetua dakar berekin.

3. Bere pertsonalitatearen garapen osoa ziurtatuko duen prestakuntza bat jasotzeko eskubidea dauka. Xede honekin Ikastetxeko Programazio orokorra bideratuko da beti; eta Musika Patronatuaren Batzordearen bidez parte hartuko dute Programazio honen onartzean.

4. Bere kontzientzia-askatasuna errespetatua izateko eskubidea dauka, erlijiozko uste sendoak, moralak edo ideologikoak, baita sinesmen edo uste sendo horiei dagokien intimitatea.

5. Ikastetxeetako funtzionamenduan eta bizitzan parte hartzeko eskubidea dauka, eskola-jardueretan eta haien kudeaketan. Bere parte-hartzea Musikako Patronatuaren Batzordearen bidez, indarrean dauden xedapenen arabera egingen da.

6. Ordezkatzen dutenen pertsonen aldetik informazioa jasotzeko eskubidea dauka.

7. Elkartzeko eskubidea dauka, ikasle-elkarteak, federazioak eta konfederazioak sortuz.

8. Ikastetxean bildu ahal izanen da eskolako edo eskolaz kanpoko izaera duten jardueretarako, baita ikasteko edo prestatzeko xedea dutela esaten den beste horietarako ere.

Ikastetxeko Zuzendaritzak ikasleen biltzeko eskubidearen erabilera bermatuko du. Ikastetxeko programazio orokorrean eskubide honen erabilerrari gordeko zaion eskola-egunaren barneko ordutegia ezarriko da, Ikastetxeko jardueren garapen normala kontuan izanik. Horretarako eskola-orduak ez diren beste ordu batzuk erabiliko dira.

9. Familia-motako nahiz ekonomi eta soziokultural motako gabezi posibleak orekatzeko laguntzak eskatzeko eskubidea dauka, modu honetan hezkuntza maila desberdinetara sarbide-eskubidea sustatuko da. Laguntza hauen inguruko informazioa Ikastetxeak emanen du.

10. Haren eskola-errendimendua baloratua izateko objektibotasun osoko irizpideen arabera eskubidea dauka. Ebaluazio jarraituko prozesuaren aplikazioak klaseetara eta ikasketa-plana osatzen duten materia desberdinetako programatuta dauden jardueretara bertaratze erregularra eskatzen du. Ikasleei edo haien tutoreei dagokien ahalmenari kalterik egin gabe, edozein kasutan ere, haien irakasleei azalpenak eskatzea jarduera akademikoen edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio partzial edo amaierako kalifikazioen inguruan, haiek edo haien ordezkari legalek erreklamatzeko ahal dute ebaluazio horien kalifikazioen kontra, ezarritako epe eta moduen barnean.

11. Eskola-orientabidea eta profesionala jasotzeko eskubidea dauka, ahalik eta gehieneko garapen pertsonal, sozial eta profesionala lortzeko, haren gaitasun, nahi eta interesen arabera.

Hezkuntza-komunitateak behar diren jarduerak antolatuko ditu haien lorpenerako.

12. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztiek aipatutako Foru Dekretuan ezartzen diren eskubideen errespetatzera behartuta daude.

13. Matrikula eta prezio publikoak:

- Matrikula alde aurretik Patronatuko Batzordeak onartutako datetan egingen da.

- Patronatuak proposatutako tasak Zizur Nagusiko Udalaren Osoko Bilkurak onartu beharko ditu matrikula epea hasi aurretik.

- Ikasturteari dagozkion ordainketen pagamendua banku-helbideratzearen bidez egingen dira, eta ordainagiria itzultzen bada, itzultze horrek sorrarazi dituen gastuak ordaindu beharko dituzte gainera.

- Ordaintzeko betekizuna, matrikulazioa gauzatzen den unetik hasten da zein bere ikasturtean.

- Ikasturtearen kostu osoa hiru ordainketen bitartez egin ahal izanen da:

* 1. ordainketa: %35 izen-emateko, plaza erreserba egiteko eta ordu-adjudikazio eskubideen kontzeptuan matrikula egiterakoan.

* 2. ordainketa: %35 urtarrilaren 2a eta 5aren artean.

* 3. ordainketa: %30 martxoaren 2a eta 5aren artean .

- Pablo Sarasate Kontserbatorioan sarbide-proba gainditzeagatik, Musika Eskolan matrikularen balio gabetzea eskatzen dutenek, ordaindutako zenbateko osoa jasotzeko eskubidea izanen dute, izen-ematearen, plaza erreserbaren eta ordu-adjudikazioaren eskubideen kontzeptuan eta Kontserbatorioan egindako matrikularen frogagiria alde aurretik erakutsiz.

- Behin matrikulaturik eta ikasturtea amaitu aurretik Baja hartu nahi dutenek, Patronatuko zuzendaritzari zuzenduko dioten Baja eskaera bete beharko dute, eta bertan adierazi ahal izanen dute, borondatez, Bajaren zergatiak.
- Baja eskaera ikasleak sinatu beharko du adinez nagusia bada, edo, adin txikikoa izanez gero, haien guraso edo tutoretza legala duenak, eta, ikastetxeko idazkaritzan aurkeztu ezarritako epeetan.
- Baja eskaerak, formalki aurkeztuta, haren onespena eta, aurkeztu den unetik, Eskolan dituen eskubide guztien galera dakar berekin, klasera joatearena bereziki.
- Baja boluntarioa denean izen-ematearen unean (1.ordainketa) ordaindutakoa ez da itzuliko, hau plaza-erreserba bat baita, ikastetxeak bete duena irakasleen eskola-orduen barnean leku bat eginez, hauekin ondoriozko konpromiso profesionalak eskuratu dira ikasturte batez, eta ordutegiak antolatzerakoan kontuan hartu da.
- Baja klaseen hasieratik eta abenduko azken eskola-eguna baino lehen bada, ikasturte horren 2. ordainketa ez da igorriko, eta otsailaren azken eskola-eguna baino lehen aurkezten bada, ez da ikasturte horretako 3. ordainketa igorriko.
- Kasu bereziak direla justifikatzen den eskaera guztietan (hiri aldaketa, gaixotasuna, eta abar) Patronatuko Batzordera aurkeztuko dira banan-banan aztertuak izan daitezten.

Laugarren Artikulua. Ikasleriaren betebeharrak:

Ikastea oinarrizko betebeharrak bat da. Betebeharrak hau datozen eginkizunetara zabaltzen da:

1. Klasera joatea eta ikasketa planen garapenera orientatutako jardueretan parte-hartzea (kontzertuak, beste eskolekin topaketak...).
2. Ikastetxeko jardueren garapenerako onartutako ordutegiak errespetatzea, kontuan izanik ordutegi hauek irakaskuntza ahalik eta gehien errazteko egin dituztela.
3. Ikaskuntzari buruzko irakasleen orientazioak jarraitzea.
4. Haien kideen ikasteko eskubidearen erabilera errespetatzea.
5. Ikasleen betebeharrak bat da Ikastetxe barneko elkarbizitza arauak errespetatzea. Betebeharrak hau datozen eginkizunetan zehazten da:
 - A) Kontzientzia askatasuna eta erlijio eta moral uste sendoak errespetatzea, baita hezkuntza-komunitate osoaren duintasuna, zintzotasuna eta intimitatea ere.
 - B) Jaiotzagatik dela, arraza, sexua, hizkuntza edo beste edozein kondizio pertsonal edo sozialagatik, hezkuntza-komunitatea osatzen duten inor ez diskriminatzea.
 - C) Ikastetxeko ondasun higigarriak eta instalazioak errespetatzea eta zuzen erabiltzea.
 - D) Ikastetxeko bizitzan eta funtzionamenduan parte hartzea.

Bosgarren Artikulua: Faltak eta hezkuntza-neurrien ezartzea

Faltak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke:

1. Falta arinak dira:

- a) Puntualtasun justifikatu gabeko faltak.
- b) Klasera joatearen justifikatu gabeko faltak.
- c) Ikastetxeko gelen, beraren materialen edo hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen objektu eta haiek dauzkaten gauzen hondatzea, larria ez dena, nahita egina.
- d) Justifikatu gabeko edozein ekintza Ikastetxeko jardueren garapena arinki aztoratzen duena.

Falta arinengatik jarduketak:

- a) Kargu-hartze pribatua.
- b) Idatzizko kargu-hartzea, adin txikikoa izanez gero aitari edota amari jakinaraziko zaiona.
- c) Egokia bada, c- falta arinen atalak esan nahi duen hondatzearen konponketan lagunduko duten lanak egitea, eskola-ordutik kanpo.
- d) Ikastetxeko jarduerak hobetzen eta garatzen lagunduko duten lanak egitea.

Falta arinak irakasleek edo zuzendaritza taldeak aztertuko dituzte, haien izaerak horrela eskatzen badu.

Falta arintzat hartzen ez diren ekintzak dagozkien irakasleek zuzenduko dituzte.

Falta astunak eta oso astunak eta zein bere hezkuntza neurriak, Musika Patronatuko Batzordearen kompetentzia izanen dira, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat egingen duena.

Falta larritzat hartzen dira justifikatu gabeko 10 gainerako hutsegite faltak, bi saioetako ikasgaietan, eta 5 asteko saio bateko ikasgaietan. Kasu hauetan antzinatasunak ematen dien matrikulazio eskubideak galduko dituzte hurrengo ikasturterako, eta sarbidea ikasle berriekin eta haien baldintza beretan izanen da

Klasearen ordutegiko 1/3 bat ez joatea, hutsegite bezala zenbatuko da.

Hutsegiteen justifikazio errepikakorra eta bereizi gabe bat dagoela kontsideratzen bada, tutoreak Patronatuari proposatu ahal izanen dio neurri zuzentzaileak hartzea justifikazio horien kontrol handiago bat lortzeko.

Ikastetxeko sistema pedagogikoaren iritziz egin behar duten ikasgai batera joaten ez direnak, ezin izanen dute ikasturtea gaingitu eta matrikulazio eskubidea antzinatasunarekin galduko dute.

Bere falten egiaztagiri propioak aurkezteko aukera egiten duen 18 urtetik gorako ikasleriak edozein lan-harremanetan eskatzen diren antzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Seigarren artikulua: Irakasleriaren eginkizunak

1. Hezkuntza-prozesuaren garapen hoberenagatik arduratzea, pertsonalitatearen ezagutzaren bidez, baita ikasleriaren interesen eta taldean integrazio graduaren bidez ere.
2. Ikasleria orientatzea eta aholkatzea bere ondorengo hezkuntza edo profesional aukeren inguruan.
3. Gurasoei informatzea haien seme eta alaben martxa akademikoaz, klasera joateaz, haien errendimenduz eta zailtasunez.
4. Bere taldeko ikasleriaren administrazio eta pedagogiko agiriak betetzea.

- Tutoretza orduak:

Gurasoei harrera egiteko, ikasleriari arreta eta gainontzeko irakasleriarekin bilerak egiteko ordutegiak, banako ordutegietan jasoko dira eta ikasturtearen hasieran jakinaraziko dira.

Ordutegia egitean ikasleri taldeen ordu posibleak haien irakasleari emandako orduetako batekin egokitu beharko da, irakaslea haiekin bildu ahal izateko.

Irakasleriak bere taldeko gurasoekin guztien bilerak deitu ahal izanen ditu, komenigarria iruditzen bazaio, ikasturte hasierako bilera egiteaz gain.

- Ebaluazio batzordeak:

Talde baten martxa eta errendimendua aldizka baloratzen duen organoa da, banaka zein kolektiboki.

Ebaluazio saiora joatea, irakasleriaren aldetik, derrigorrezkoa da.

Taldeko irakasleriak ebaluazio aktetan jarriko ditu haien notak.

Ebaluazio saioan ikasleriaren banako eta kolektiboko balorazio bat egingen da errendimenduari, jarrerari edota interesari dagokionez, eta arreta berezi bat merezi duten kasu problematikoaren azterketa bat egingen da, irtenbideak proposatuz.

Zazpigarren Artikulua: Gurasoak

1. Elkarre batean edo gehiagotan antolatu ahal izanen dira.
2. Ikastetxearen kudeaketan parte hartu ahal izanen dute Musika Patronatuko Batzordean duten ordezkartzaren bitartez.
3. Elkarreek diruz lagundu ahal izanen dute Ikastetxeak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan.

4. Haien seme-alaben errendimendu akademikoari buruzko informazioa jasoko dute Kalifikazio Aldizkarien bitartez, Ikastetxera igorri beharko dituztenak sinaturik. Bilerak egin ahal izanen dira familiekin haiek eskatuz gero edo irakasleriak eskatuz gero.

Halaber, haien seme-alaben portaeraz informatuko zaie aipatutako Kalifikazio Aldizkarian erreserbatutako Oharrak izeneko atalean, baita hutsegiteez eta jokabide desegokiez ere.

Justifikatu gabeko faltan pilaketa falta arina, astuna edo oso astuna da, dagokion zigorra daramana, Araudi honen Faltak eta zigorrak atalean tipifikatua jada.

Errendimendu akademikoa edo portaera egokia ez denean, gurasoei beste ikasketa batzuk egiteko egokitasunaz informatuko zaie, haien seme edo alabaren aukerak, gaitasuna edo nahiarekin bat datozenak.

5. Familiak Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerekin kolaboratu beharko dute, haien seme eta alabak parte-hartzera animatuz, modu honetan haien garapen kulturala beteagoa izatera lagunduz.

Halaber, beharrezkoa denean, haien kolaborazioa eskatu ahal izanen da (eskola-egunetik kanpoko programatutako irteeretan laguntzaile modura, diru-ekarpen txikiak ...).

Zizur Nagusia, 2016ko apirilaren 19an

Lehendakaritza, **MIKEL APESTEGUIA SARASIBAR**